BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1452

AGINDUA, 2013ko otsailaren 15ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. fasea» proiektua gauzatzeko desjabetu behar diren ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea eta desjabetzarako espedienteari hasiera ematea ebazteko dena.

Sail honek honako Agindu hau eman du gaur:

«Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. Fasea» izeneko proiektuari dagokion hirigintza-espedientea aztertu da.

2009ko urriaren 19ko Sestaoko Alkatetzako Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 EU Urbanizatzeko Jarduketa-Programa» izeneko espedientea.

Hori gauzatzeko desjabetu behar diren ondasun eta eskubideak banakatuta eta behar bezala zehaztuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan, identifikatzeko beharrezkoak diren datuekin. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen epean aurkeztu ziren arrazoibide-idazkiak bere garaian ebatzi ziren.

«Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. Fasea» proiektua gauzatzea luzaezintzat jo da, eraikintza merkatua nola dagoen ikusita, diru-ahalmen gutxien duen biztanleria-taldeari etxebizitza duina eta prezio eskuragarrian bideratzekotan.

Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 176. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Hirigintza Planak onartzeak obren onura publikoa deklaratzea eta lurrak eta dagozkion gainerako ondasun eta eskubideak okupatu beharra dakar, desjabetzeko edo zortasunak ezartzeko.

Aipatutako desjabetzeko proiektu horretan bildutako lurrak hiri-lurzoru gisa sailkatuta daude Sestaoko Txabarri auzoko ARI Birgaitzeko Plan Bereziaren Aldaketan, eta, bertan, desjabetzea finkatuta dago jarduteko sistema gisa. Beraz, Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legean (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) ezarritakoaren arabera, bidezkoa da nahitaezko desjabetzea ezartzea.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen (1956ko abenduaren 16koa) 17. artikuluan eta hurrengoetan eta haren Arautegiko dagozkion artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 178. artikuluari jarraikiz, arauzkoa da desjabetzeko prozedurak eraginpean hartutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 178. artikuluari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26 1.f) artikuluaren arabera eta Derrigorrezko Lurjabetzearen Legearen 52. artikuluak dioenez, salbuespen modura eta Euskadiko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabaki bidez, presakotzat jo daiteke obra bat egiteak edo helburu jakin bat izateak eragin dezakeen desjabetzeak afektatutako ondasunak eta eskubideak okupatzea.

Aipatutako xedapenei, horien kidekoei eta ezargarri den gainontzekoari atxikiz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.– Nahitaezko desjabetze-espedienteari hasiera ematea, «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. Fasea» proiektuan bildutako ondasun eta eskubideak okupatzeko, betiere horren baitan bildutzat emanda obrak onura publikokoak direla deklaratzea eta lurrak eta dagozkion eraikinak desjabetu edo zortasun-ezarketa egin beharra dagoela, Euskko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 176. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2.– Aipatutako espedienteak eraginpean hartutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, legeak agindutako azken argitalpenetik hamabost egun balioduneko epean, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan (Kale Nagusia 85, Bilbao), aipatutako zerrendan dauden akatsak zuzentzeko. Horretarako lege hauek hartu dira kontuan: Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17. artikulua eta hurrengoak, haren Erregelamenduarekin bat datozenak, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Eusko Lege Biltzarraren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178. artikulua.

Epe horretan zehar honekin batera doan ondasun eta eskubideen zerrenda Sestaoko udaletxeko iragarki-taulan ere ikusgai izango da, aipatutako ondorioetarako.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzaren Kontseiluari, «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. Fasea» proiektua burutzeko hartu beharrekoak diren ondasun eta eskubideak, nahitaezko desjabetzea egiteko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratzeko eskatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 15a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

PROIEKTUA: «SESTAOKO TXABARRI BIA-KO 1 EU URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMA, 2. FASEA».

Titularraren izen-abizenak eta helbidea	Finka	Azalera	Katastroko datuak				Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera
		Desjabetzea	Lur-eremua	Etxadia	Lur-zatia	Zenb. finkoa	
Juan Herrero López Nikolas Ormaetxea 6 - Erdisotoa 48910 Sestao - Bizkaia	19- Erdisotoa	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko bizitegi-erabilerarik ez duen erdi-sotoko lokala (banatu gabe), eraikinik gabeko 29,12 m²ko lurra, eta osagai komunen % 13,39				U0138271U U0138270M	Hiri-ondasuna. Lokala (Nikolas Ormaetxea kalea 6. erdisotoa) eta lursaila
Joaquín Calvo Codesal, M.ª Angeles Travieso González Nikolas Ormaetxea 6 - Erdiko erdisotoa 48910 Sestao - Bizkaia	19- Erdiko erdisotoa	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko erdi-sotoko etxebizitza, eta osagai komunak % 11,62				U0138268G	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. erdisotoa)
Isaac Losada Rodríguez, Marina Gil Ortega Nikolas Ormaetxea 6 - Behea ezk. 48910 Sestao - Bizkaia	19- Behea ezk.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko behe-solairuko ezkerreko etxebizitza, eta osagai komunak % 12,41				U3049481A	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. behea, ezkerra)
Eugenio Vega Corzo, M.ª Luisa Novo Ansean, Eugenio Vega Ramón, Valeriana Corzo Castaño Nikolas Ormaetxea 6 - Behea esk. 48910 Sestao - Bizkaia	19- Behea esk.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko behe-solairuko eskuineko etxebizitza, eta osagai komunak % 12,60				U0138273N	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. behea, eskuina)
Antonio Navas García, Ana Rosa García Monedero Nikolas Ormaetxea 6 - 1. ezk. 48910 Sestao - Bizkaia Bilbao Bizkaia Kutxa	19-1.a ezk.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 1.ezk. etxebizitza, eta osagai komunak % 12,41				U3049480P	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. 1. ezk.).
José Vinagre Rodriguez, Ceferina Fernández Arias Nikolas Ormaetxea 6 - 1. esk. 48910 Sestao - Bizkaia	19-1.a esk.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 1.esk. etxebizitza, eta ganbarako 1/6				U0138275G	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. 1. esk.)
Eugenio Vega Corzo Nikolas Ormaetxea 6 - 2. ezk. 48910 Sestao - Bizkaia	19-2.a ezk.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 2. ezk. etxebizitza, ganbarako ½ eta osagai komunak % 12,41				U3049482Y	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. 2. ezk.)
Juan Carlos eta Mercedes González Torres Nikolas Ormaetxea 6 - 2. esk. 48910 Sestao - Bizkaia Bilbao Bizkaia Kutxa	19-2.a esk.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 2. esk. etxebizitza, ganbarako 1/6 eta osagai komunak % 12,60				U0138274V	Hiri-ondasuna. Etxebizitza (Nikolas Ormaetxea kalea 6. 2. esk.)